

batare argi. Inkesta baten arabera, 1993an EU-EGren alde egin zuten hautesleen herenek aurten nahiago dute BNGri botoa ematea, eta beste herenek IUK azken unean aurkeztutako zerrenda aukeratu dute. Hortaz, 15.000-20.000 boto eskas emango bide dizkio EU-EGk PSdeGren inguruko koalizioari eta gehienez Pontevedran diputatu bat irabaziko du. Kontuan hartzen bada EU-EGko bi burukidek -Anxo Guerrero eta Jose Manuel Pazos- ziurtaturik dutela aukeraketa eta gero talde mistora igaroko direla, sozialistek etekin gutxi aterako dute eserleku aldetik. Nolanahi ere, koalizio horrek segida izan dezake beste leku batzuetan -Katalunian, adibidez- eta, alde horretatik, positiboa izango da agian PSOerentzat.

Sozialisten beste arazo bat hautagaiarena da. Azken hiru hauteskundeetan hiru hautagairekin lehiatu da PSdeG: 1989an Fernando Gonzalez Laxe izan zen, 1993an Antolin Sanchez Presedo eta aurten Abel Caballero. Gonzalez Laxek 28 diputatu lortu zituen, baina Sanchez Presedok porrot historikoa izan zuen, 19raino jaitzita. Sanchez Presedo eta harekin batera @Iberritzailleak@- desagertu egin ziren, eta orain alderdia @Iguerristen@- kontrolpean dago. PSdeGko benetako buruzagia Francisco Vazquez Coruña alkatea da, baina horrek nahiago izan du hurrengo hauteskundeetan lehiatu, orain Fragari irabaztea ia ezinezkoa delako eta BNGrekin koaligatzeak tripako min handia ematen diolako. Caballero izan zen hautagai gisa bere burua aurkeztu zuen bakarra, eta urtebete osoa eman du bere burua ezagutarazten, Galizian ia ezezaguna baitzen. Alderdien barnean inork ez du ozenki hitz egin koalizioaren edo hautagaiaren aurka, baina Vigo aldean ez dute begi onez ikusten Vazquezen Icoruñesismo- sutsua eta ez diote barkatzen 1993an botorik ez eman izana.

Beiras, Blokeko lider bakarra

BNGk, berriz, ez du lidergo arazorik. Xose Manuel Beiras baita haien artean lider karismatiko eta bakarra. Blokea ezkerreko eta zentrotako talde nazionalisten fronte bat da. Barruan, bere burua marxistatzat duen UPG dago -talde indartsuena-, ezker muturreko Inzarrekin, zentrotako PNG eta Unidade Galegarekin eta Beirasen Esquerda Nacionalistarekin. BNGren ingurukoak dira CIG langile sindikatua eta SLG nekazariarena ere.

Kanpaina honetako mitinetan ikusi denez, BNG da hirietako gazteak gehien erakartzen dituen eta PP, aldiz, adinekoen sustengua duena. X

hautagai nagusiak

Manuel Fraga

Manuel Fraga Iribarne duela 74 urte jaio zen Villalban (Lugo), eta berak harro dioten bezala, Espainiako politikagintzan denbora gehien egin duen politikoa da. Zuzenbidean doktoratua, Fraga 50eko hamarkadan hasi zen administrazio frankistako goi karguetan. 1955etik 1975era arte Gorte frankistetako prokuradore izan zen. 1962tik 1969ra Informazio eta Turismo ministro izan zen. Garai hartakoa da Palomaresko bainu ospetsua, eta Prentsaren Legea. Franco diktadorearen heriotza Londresen enbaxadore zegoela gertatu zen, eta Espainiara itzulita, Arias Navarrosen Gobernuoko Gobernazio ministro izan zen. Gasteizko langileen sarraskia izan zenean bera zen ministro, eta orduan esan zuen «kalea



nirea da». Arias Navarrosen batera utzi zuen Gobernuak 1976ko uztailean, eta urtebete geroago, frankismoko beste goi kargu batzuekin batera Alianza Popular (AP) sortu zuen. APk 16 diputatu besterik lortu ez zituen arren, Fraga 1978ko Konstituzioa idatziz zutenen artean izan zen. 1979an porrot egin zuen, baina 1982an, oposizioko lehen talde bilakatu zen. 1986an partidua A Hernandez Mancharen esku utzi zuen, denbora laburréz. 1989an Aznarren esku utzi zuen lehendakari zarako aurkeztea, eta urtebete geroago alderdiko buruzagitza utzi zuen. Fraga Xuntako presidente bilakatu zen 1989an. Ordura arte antiautonomista sutsua izan zena «galegista» bihurtu zen, arrakasta handiz.

Abel Caballero

Duela 51 urte Ponteareasen (Pontevedra) jaioa, Abel Caballero da, aukerak dituzten artean, presidentegai gazteena. Essexko eta Cambridgeko (Ingalaterra) unibertsitateetan ekonomia ikasi zuen, eta Santiagon Xose Manuel Beirasen ikasle izan zen. Beirasek Caballero ikasle ona izan zela dioten arren, politikoa sozialistak ez du hitz gozirik irakasle izan zenarentzat. Irakaskuntza eta politika tartekatu ostean, 1985etik 1988ra Garraio eta Turismo ministroa izan zen Felipe Gonzalezen gobernuan. Garai horretan Galiziaren alde ezer egin ez zuela leporatzen dio PPK, baina berak aireportuak eraiki zituela eta sare telefonikoa hedatu zuela erantzuten du. Sektore guerristakoa kide, alderdi sozialistaren



buruzagitza hainbat kargu bete ditu, baina orain dela gutxira arte ez da Galiziako politikagintzan aritu. Francisco Vazquezen eskutik Galiziako PSOeko presidentente izendatu zuten, baina, hala ere, bera da hautagai ezezagunena. Ingurukoek oso baikorra dela esaten dute eta sinetsi beharko zaie, kanpainen zehar, aurreikuspen txar guztiei aurre eginez, sozialisten garaipena iragarri duelako. Fragak ez du aurkari gisa kontuan hartzen eta Beiras asko haserretu eta, Caballero behin eta berriro ziurtatu duelako ezkerreko koalizioak paktu orokorrik gabe gobernatuko duela. Ez dirudi, ordea, ametsa beteko duenik, inkestei erreparatuz gero koalizioak hirugarren lekuan geratzeko aukera ugari baititu.

Xose Manuel Beiras

Xose Manuel Beiras Torrado Santiagon jaio zen duela 61 urte familia burges batean. Zuzenbidean lizentziatua, ekonomia ikasketak egin zituen Parisen eta Londresen, eta 1965ean, Galiziar itzuli zenean, Santiagoko Unibertsitatean Ekonomia Politikoko irakasle eta gero katedradun izan zen. 1973an, *O Atrazo economico de Galicia* (Galiziaren atzerapen ekonomikoa) idatzi zuen: bere lurraren atzerapenari buruz ordura arte idatzitako liburu garrantzitsuenetako bat. Galiziako Alderdi Sozialistako (PSG) buru izan zen, baina alderdi hura utzi zuen 1977ko hauteskundeetan porrot egin ondoren. 1982az geroztik, buru-belarri sartu zen Bloke Nazionalista Galziarraren (BNG) sorreran, Esquerda Nacionalistako (EN)



buruzagi gisa. 1985ean, BNGko diputatu autonomiko bakarra bilakatu zen. Hizlari ona izanik, 1989az geroztik, Manuel Fragaren parlamentuan izan duen aurkari dialektiko nagusia izan da, sozialistak nahiko apal azaldu direlako oposizioan. Oso ospetsua egin zen 1993ko martxoan, Legebiltzarreko eztabaida batean zapata oinetik atera eta harekin kolpeka hasi zenean, PPren gehiegikeriak salatzean. Kanpainen zehar programa gehien azaldu duen hautagaia izan da. Hala ere, Fraga «ministro faxista» izan zela behin eta berriro gogorarazi du. Kanpainaren azkenaldera, haserre azaldu da Caballerorekin, Fragak gehiengo osoa galduz gero koalizioa gobernua osatzeko egin dizkion eskaintzei erantzun axolagabeak eman dizkiolako.

Hauteskundeak zerbaiten

Galiziako hauteskundeetako zerbaiten esanguratsuenak:

- ✱ **2.565.131:** Botoa emateko eskubidea duten galziarrak. Horietatik 2,33 milioi Galizian bertan bizi dira eta gainontzeko 230.000ak atzerrian. Argentinan soilik, 60.000 dira botoa eman dezaketenak eta 36.000 Suitzan. Guztira, 1.370.000 dira Galizian jaio eta beste lurralde batzuetan bizi direnak. Hego Euskal Herrian 150.000tik gora galego bizi dira. Hego Amerikan, ia 600.000 dira han bizi diren galziarrak, hots, Espainiako herritartasuna dutenen %60.
- ✱ **3.774:** Galegoek boto emateko izango dituzten hauteskundeetako mahaia. Horrek esan nahi du Galiziako barnealdeko herritartekako biztanle gehienek beste leku batera joan beharko dutela botoa emateko. Izan ere, Galizian 32.000 herri edo herrixka daude, Espainian bezainbeste. Udalerriak, berriz, 313 dira.
- ✱ **189:** Milioitan neurtuta, PPK kanpainen ofizialki gastatu duen dirua, oposizioak askoz gehiago dela uste duen arren. PSdeG eta BNG ez dira 130 milioi-tatik pasatu.
- ✱ **75:** Galiziako Legebiltzarreko eserlekuak. Coruña 24 aukeratuko ditu, 22 Pontevedrak, 15 Lugok eta 14 Ourensek.
- ✱ **38:** Gehiengo osoa, Fragaren helburua. 1989an, Fragak 38 doi-doi eskuratu zituen, baina lau urte geroago 43ra igo zen. Inkestak betetzen badira, 40-41 gordeko ditu. PSdeGk 19 lortu zituen 1993an eta antzeko kopurua espero du orain ere. BNGk 13 izan zituen azkenekoetan eta orain hortik gora joko du.
- ✱ **35,8:** 1993ko hauteskundeetako abstentzio portzentaia. Lehen hauteskundeetatik, gorantz egin du partaidetzak: 1981ean %47,3koa izan zen, 1985ean %57,4koa, 1989an %59,54koa eta 1993an %64,2koa.
- ✱ **6,9:** Fragaren kezka nagusia: munduko jaiotze tasa txikiena. Mila biztanleko, 6,9 haur baizik ez dira jaiotzen Galizian. Espainian batez bestekoa %9,1ekoa da. Galiziako biztanleria azkar zahartzen ari da, batez ere Lugon eta Ourensean. Horrela jarraituz gero, Galiziak 300.000 biztanle galduko ditu 2010. urterako. Azken hamar urteotan, esaterako, biztanleria aktiboak 60.000 lagun egin du behera. X